

## Zikloari ekin diote

Euskal Herriko dokumentalak proiektatzen ari da Okendo Zinema Taldea; lau gehiago emango ditu hila amaitu aurretik / 6

TXINTXARRI

## Egitarauak aurrera darrai

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako egitarauaren azken bi hitzorduak eramango dituzte aurrera egunotan / 2-3

**Bizikleta hirietan egoki nola erabili ikasteko egitasmo batean parte hartuko dute Oriarte Institutuko ikasleek / 5**

**Donostian kantatuta, Alboka Abesbatzak "ezin hobeto" amaitu du Luberri koruarekin egindako trukea / 7**

**Maratoialdiko zuhaitzen plaken lehiaketa irabazi dute Izaskun Manterola eta Xuban Urdalleta lasarteoriatarrek / 8**

**Saria jaso du Aitor Manso pilotuak, 2022ko Euskadiko mendi igoeren txapelketa irabazi izanagatik / 10**

**Buruntzaldea IKTko igerilariek dominak, marka berriak eta errekorrak lortu dituzte zenbait probatan / 11**

**Aurtengo udaleku itxietan izena emateko epea hilaren 20an zabalduko du Ttakun Kultur Elkarteak / 16**

2x229€

ERREFLEXUEN AURKAKO  
MÓ BETAURREKO  
PROGRESIBOAK

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE-ORIA

**MULTIÓPTICAS**  
kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multiópticas.com   

# Gertatutako guztia liburu batean argitaratu dute

'Gertatutako guztia argitan jarri' liburuaren aurkezpena egin dute, berriki, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Hegoa Institutuko Irantzu Mendia eta Gloria Guzman izan dira hizlariak, eta Kontxesi Berrio-Otxoak egin ditu dinamizatzaile lanak

## Txintxarri

*Gertatutako guztia argitan jarri* liburuaren aurkezpena egin dute, berriki, kultur etxean. Mendebaldeko Sahara okupatuko emakumeen eskubideen aurka Marokok egindako urraketei buruzko informazioa biltzen du txostenak. Lurralde Okupatuko Emakume Sahararren Guneak eta Hegoa Institutuak elkarlanean osatu dute eta indarkeria pairatu duten 81 emakumeren testigantza du oinarri. Lana kultur etxeko hitzaldi aretoan aurkeztu zuten hilaren 10ean Irantzu Mendia eta Gloria Guzman ikertzaileek.

"Honen berri izan dezatela, kanpoko jendeak jakin dezala". Eskaera hori behin eta berriro errepikatzen da jasan dutena azaldu duten emakume sahararren artean. Horri erantzunez *Gertatutako guztia argitan jarri*. Emakumeen giza eskubideen urraketak. Mendebaldeko Sahara

**GLORIA GUZMAN ETA IRANTZU MENDIAK EMAN DITUZTE LIBURUAREN XEHETASUNAK**

okupatuan (1975-2021) liburua idatzi, eta edukia zabalitzen ari dira Hegoa Institutuko kideak, Manuel Lekuona Kultur Etxean aurrera eramandako aurkezpenean egin bezala. Ordubete luzez bildutakoa xehatu zuten Irantzu Mendiak eta Gloria Guzmanek, objektibotasuna handiagotzen duten datuak emanez eta haiek gizatasunez betetzen dituzten testigantzen pasarte batzuk txertatuz. Ia bost hamarkadaz luzatu den gatazkaren alde laugarri honen berri izan asmoz, 25 bat herritar bertaratu ziren liburu aurkezpenera.



Ezker-eskuin, Kontxesi Berrio-Otxoa eta Gloria Guzman, kultur etxean. TXINTXARRI



Irantzu Mendia izan zen hizlarietako bat, Gloria Guzmanekin batera. TXINTXARRI

## 'Sálvese quien pueda' antzezlanaren oholtzaratu dute

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako egitarauaren barruan, Sexuen Elkarbizitarako Emakumeen Zentroko Makelur Antzerki taldeak *Sálvese quien pueda*. Canal 38 antzeztu zuen hilaren 10ean kultur etxean. Estutasunetan dagoen telebista ekoizle batek emakume talde elebre bat aukeratuko du koloka dagoen lehiaketan parte hartzeko, arduradunaren etsipenerako. Aurkezleak, berriz, beste arazo bati aurre egin beharko dio, inork ez badaki ere, haurdun baitago, eta hori gutxi balitz, kabareteko izarra izandako amaren bisita jasoko du. Guztien gorabehera eta ateraldiekin barre ugari egin zuten aretoa bete zuten ikusleek.



Makelur antzerki taldeko kideak, kultur etxeko agertokian. TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Emakumeek idatzitako doinuen kontzertua

Emakumeen Nazioarteko Egunari lotutako ekimen sortaren barruan, Zero Sette akordeoi taldeak emanaldia egin zuen Antonio Mercero aretoan. Emakume konposatzaileen lanekin osatutako kontzertua eman zuten bost kideek. Maria Antonia de Mazarredo, Berta Josephine Hecker, Lucile Grety, Amy Marcy Cheney Beach... XVIII. mende amaieratik aurrera sortutako piezak izan ziren denak. Zuzendariak obrak aurkeztu zitenu eta doinuekin batera, pantailan egileari buruzko informazioa, irudia eta partitura bera proiektatu zuten.

# Martxoaren 8a aldarrikatzen jarraitzeko datozen hitzorduak

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira udalak iragarritako azken jarduerak egingo dituzte egunotan

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak Martxoaren 8aren harira antolatutako jarduerak aurrera eramaten ari dira asteotan herritarrek. Askotariko eskaitzetan parte hartzeko aukera izan dute, eta datozen egunetan ere izango dute horretarako parada; izan ere,

oraindik ere pare bat deialdi baitaude iragarrita.

Lehena, datorren asteartean izango da, hilak 21. Arantxa Urretabizkaiaren *Azken Etxea* liburua izango dute mintzagai; idazleak berak parte hartuko du saioan, eta Uxue Alberdi arduratuko da tartea dinami-

zatzeaz. Ekimen hori herriko Irakurle Txokoarekin elkarlanean prestatu dute udalekoek eta kultur etxean izango da, 18:30etik aurrera.

Hilaren 23an, aldiz, ostegunarekin, Izan Inurri egitasmoko kideek *Dragon Cáncer* podcastaren saioetako bat aurrera eramango dute. 19:00etan hasiko da, hori ere kultur etxean, eta sarrerek 3 euro balio dute.



TXINTXARRI

## Horma morean agertutakoak salatu dituzte

Ikama ikasle antolakundeak hilaren 10ean salatu zuen ikastetxeko horma morean beste behin pintaketak egin zituztela eta horri erantzuteko mobilizazioa bat aurrera eramane zuten patioan. Horrez gain, elkarretaratzea deitu zuten arratsalderako. Okendon bildu ziren 19:30etik aurrera eta hainbat herritarrek bat egin zuten *Eraso matxista, faxista edota homofoboaren aurrean borroka feminista* zioen pankarta atzean jarrita.

Zenbait minuturen ondoren, Ikamaren adierazpena irakurri zuen kideetako batek. Halako pintaketak agertu diren hirugarren aldia dela nabarmenduz ekin zion: 2020ko azaroaren 25ean mezu homofobo, matxista eta faxistak egin zituzten, iaz, berriz, nazismoa gehitu eta kideetako bati zuzenki eraso egin zioten. "Gaurkoan: Viva España, Viva Franco, Viva Vox, putas feminazis eta el violador soy yo bezalako mezuekin bete dute gure horma morea".

## Parte hartzaile sarituak!

Ttakun Kultur Elkarateak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean aurrera eramaten duten Gazte Kluba egitasmoko gaztetxoek lehiaketa berezi bat prestatu zuten Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Hilaren 12ra arte izan dute herritarrek bertan parte hartzeko aukera, TXINTXARRI aldizkariaren atari digitalaren bidez.

Guztira 38 parte hartzaile batu ditu lehiaketak, eta horietatik guztietatik zortzik erantzun dituzte hamar galderak zuzen. Lehiaketa gehienek izan ohi duten modu berean, honek ere bazuen saria ordainetan: Bea Egizabalen *Magma mia* ikuskizunaz gozatzeko lau sarrera bikoitz. Horietako bi parte hartzaile guztien artean zozkatu ditu, eta Unai Ibarzabal eta Juan Luis Eizmendi izan dira irabazleak. Beste bi sarrera bikoitzak, berriz, parte hartzaile guztien artean zozkatu ditu, eta Enara Gonzalo eta Mikel Izquierdo izan dira saridunak.

Zorionak lauroi!



Juan Luis Eizmendi. JUAN LUIS EIZMENDI



Unai Ibarzabal. TXINTXARRI



Enara Gonzalo. ENARA GONZALO



Mikel Izquierdo. TXINTXARRI

martxoak 9 - 29



Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

**Bat egin**  
**Errigora**  
**Balioekin**



Bete ezazu despentsa urte guztirako

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arrosa, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

[errigora.eus](http://errigora.eus)



# Gutxi eztabaidatu dute hil honetako bilkuran

Ohiko bilkura egin du Lasarte-Oriako udal korporazioak. Bederatzi puntu aurkeztu ditu gai ordenean, baina, orokorrean, ez da eztabaida handiegirik sortu. EH Bilduk mozio bat mahaigaineratu du Martxoaren 8aren harira; horrek sortu du ika-mika gehien

## Txintxarri

Berriki egin du udal korporazioak hilabete honetako ohiko udalbatzarra: hilaren 9an. 18:30ean eman zion hasiera saioari Agustin Valdivia alkateak, eta lehen bost puntuak azkar batean landu zituzten, eztabaidarik gabe. Hauek izan ziren landutako gaiak: 2023ko otsailaren 9 eta 24an ospatutako bilkuren akten onarpena, aho batez onartu zuten; 2022ko ekitaldian kredituak aldatzeko ordura arte bideratu zen dosierraren berri ematea (kreditu gehigarrien 2. espedienteak); 2022 ekitaldian kredituak aldatzeko ordura arte bideratu den dosierraren berri ematea (1. kreditu zabalkuntza); Lasarte-Oriako Udalaren 2023ko Literatura Lehiaketaren oinarrien aldatzeko onarpena, aho batez onartu zuten; eta, bateragarritasuna onartzeko eskaera onestea. Aldeko 15 bozka batu zituen (PSE-EEren 8; EH Bilduren 4; eta, EAJren 2) eta ELOPen bi abstentzio ere bai.

Lasarte-Oriako Udalaren 2023ko lanpostuen zerrrenda onartzeaz hitz egin zuten seigarren puntuan.

Bozketa egin aurretik, ELOP alderdiko David Aresen hartu zuen hitza, eta azaldu, planteatzen diren zuzenketa gehienekin bat egiten duten arren, ez daudela ados proposatzen diren osagarri batzuekin. Gaineratu zuen, azken horiek "nahikoa justifikatu gabeko gehiegizko soldatak" sortzen dituztela. Iritzi hori kontuan hartuta, azpimarratu zuen bere alderdia abstenitu egingo zela, nahiago zuelako balorazio txostenaren zain geratu.

EAJko Jon Antxordokik hartu zuen hitza gero, bozka azalpena egiteko. Ohartarazpen bat egin zuen, esanaz, bere alderdiak alde bozkatu zuen arren, udaltzainen kabo postuari bigarren hizkuntza eskakizuna eskatu beharrean, hirugarrena exijitu beharko litzaiokeela. EH Bilduko Esti Garmendiak, aldiz, bere alderdiak abstentziara jo izanaren arrazoiak azaldu zuten, argituz lanpostuen arteko erlazio txostenari "hainbat hutsune" ikusten dizkiola.

Bozketa egin zuten jarraian, eta honakoa izan zen emaitza: aldeko 11 bozka (PSE-EErenak eta EAJren hiru), eta sei

abstentzio (EH Bilduren 4 eta ELOPen 2). Hori hala izanik, aurrera egin zuen gaiak.

Bozeramaileen Batzarrak 2023ko martxoaren 8rako EUDELeke adierazpena adostu izanaren kontu ematea egin zuten zazpigarren puntuan, eta zuzenean, zortzigarren gaiari eutsi zioten. Mozio bat ekarri zuen mahai gainera EH Bilduk. Uxue Loinaz alderdikideak hartu zuen hitza, eta esan, EUDELen adierazpenaz gain, zaintza zentroan jarriko duen zenbait neurri proposatzen dituen mozioa ekarri zuela bilkurara. Gaiak ez zuten aurrera egiterik izan, bozketak aurkako eta abstentzio iritzi gehiago bildu baitzituen, aldekoak baino. Hau izan zen alderdien jarrera gaiarekiko: PSE-EE aurka (8 bozka); EH Bildu eta ELOP alde (6 bozka); eta, hiru abstentzio (EAJ).

Bi galdera eta eskaera bat jaso zituen udal gobernu taldeak, saioa amaitu aurretik; ELOP eta EAJaren partetik. Saioa osorik ikusi nahi duenak, honako helbidean egin dezake: <https://www.youtube.com/watch?v=KfKY-WMfvNI>.

## Lankidetzaren hitzarmena berri dute Usurbil LHik eta GFAk

Akordioaren bidez, energia berritzaileen alorra lantzeaz gain, baliabide hori efizienteki erabiltzean jarriko dute fokua

## Txintxarri

Prestakuntza, dibulgazioa eta sentsibilizazioa sustatzen jarraitzeko akordioa berri dute Usurbilgo Lanbide Eskolak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak. Hala jakinarazi du ikastetxeak, eta iragarri, hitzarmen horren bidez energia berritzaileen alorra

jorratez gain, energia aurreztu eta efizienteki erabiltzean jarriko dute fokua.

Hauek dira hezkuntza zentroak eta erakundeak hartu dituzten konpromisoak, akordioa berritzeko ekitaldian: prestakuntza teknikoak, Gipuzkoako udalen eraikinetako energia kontsumitzen duten

instalazioak erosi, mantendu eta erabiltzearekin zerikusia duten funtzioak aurrera eramaten dituzten teknikari eta kudeatzaileentzat; Dibulgazio, sentsibilizazio eta frogatze jardunaldi teknikoak, Gipuzkoako Foru Aldundiko nahiz udaletako teknikariei edota enpresa pribatuak zein merkataritzako profesionaleri bideratutako saioak izango dira; eta, Dibulgazio, sentsibilizazio eta erakustaldi bisitak herriarrentzat (autokontsumorako nahiz ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioei buruzkoak izango dira).



NEURE KABUZ

JULEN BASTERRA

## Naturarekin konektatzen

Ez nuke handiustekoa izan nahi edota inor inbidiatan uzterik nahi, baina, uste dut lasarteoriatar gutxiak konektatu duela neguarekin nik bezainbeste aurten. Erraza da udaberriko epeltasunarekin identifikatzea, udarako eguzki beroa hondartzarekin uztartzea, udazkeneko hosto lehorrak zapaltzea edota negua sutondoan igarotzea. Baina, neguko hotza, euria edo elurrarekin kanpoan zortzi orduz aritzea... Hori beste kontu bat da. Zin dagizuet, momentu batzuetan, erabateko konexioa lortu dudala. Hori bai, teorian gustuko ez dugun naturaren alderdi horrekin.

Hasieran, ez duzu hor egon nahi. Hor egon behar ez zenukeela dioten ahots pila bat entzuten dituzu zure buruan. Baina, hor zaude, tipula adina kapa soinean, eskularru eta txano. Hotz handia egiten du eta zu adarrak lotzeko makinarekin adarrak banan-banan estruktura metalikora lotzen ari zara. Adarra hartu, norabidea eman, pistolari tiro, plastikozko alanbredun lazoa jarri eta hurrengo adarrari so. Behatz puntak sentitzeaz ez uzteko gogor estutzen dituzu aldiro eskuak. Odola bero mantentzea lortu duzu. Bat-batean, hotza desagertu egiten da. Hotza ez baitzegoen "inon", hotza sentitzeko gai zen gorputza baizik. Lanak, berriz, beti darrai. Jarduera errepikakor hori ez da desagertu.

"Hamaikak". Deskantsua iragartzen duen lankidearen ahotsak geldiarazi zaitu. Fruta pixka bat jateko lehen etenaldia da. Hamabost bat minutu eta lanera itzultzen zara berriro. Hor zaude, bi besoak luzaturik, adar guztietara helduz, bakar bat ere lotu gabe ez uzteko asmoz. Bazoak, landare bat bestearen atzetik lotuz, estruktura metalikoa adarrez betez, modu horizontalean. Zu, berriz, burua gorantz begira ari zara, bertikalean. Lepoa nekatu zaizu zerura begira, baina, postura horretan, inoiz erreparatu ez zenien txorien presentziak jabetzen zara. Lankideei galdetzen diezu hegazti horiek ezagutzen ote dituzten. "Milanos". Miru gorriak direla berretsi duzue mugikorrean. Hegazti eder horien konpainiak lan errepikakorra arindu dizu. Musika jar zenezake, baina, nahiago duzu txorien kantuz eguna girotu: mikak, beleak, usoak, txantxangorriak...

"Ordubata". Lankideekin mahastian bertan eseri eta aurreko egunean prestaturiko termotik koilara platera epela sartzen duzu barrura zera ikustea ahalbidetzen dizun estruktura metalikoaren azpian. Koilarakada bakoitza pare bat kontu elkarri esanez uztartu eta azken txanpari ekitera. Hotza berriro, hotza sentitzen duen zure gorputza. Geldialdiak erritmoa hautsi dizu. Kosta egiten zaizun arren, lanean sartzen zara buru belarri beste behin. Lankidearekin hitz egin zenezake, baina isiltasun horretan dagoen bakeaz eta edertasunaz ohartzen zara. Ez duzu isiltasuna hautsi nahi. Zerbait esateak unea okerragotuko luke. Elurra hasi du orduan. Haizearekin batera aurpegian jotzen du, hotza sentitzen duen zure aurpegian. Euritarako erabiltzen duzun arrantzaletre trajea soinean duzula sutondoan balitz bezala duzu gorputza. Bero. Badakizu nola mugitu. Lanaren erritmora. Aurpegiari, nahi gabe, irribarre bat marraztu zaio.

"Ez dio axola eguraldiak". Txoriburu bat bazina bezala begiratu zaituzte lankideek gustura ari zarela esan diezunean. Irribarre kutsatu diezue elkarri. Barrea ere bai. Eta hor zaude, txoriburu bat zarela jakitun. Han. Hemengo neguan. Mirua bezala. Zorionsu.

Alajaina... Ezagutzen ez zenuen naturaren aurpegi horrek erakutsi dizu aurten, nolabait, naturarekin konektatzen.

GORKA LASA | ASIER ODRIUZOLA | GORKA ALVAREZ  
JEXUX ARTETXE | MAITANE REBE | JULEN BASTERRA  
LIERNI REKONDO | AIZPEA AMAS

# Bizikleta hirian nola erabili ikasiko dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako bizikletaren hiri erabileraren gaineko ikastaroan parte hartuko dute Orlarte Institutuko hainbat ikaslek. Helburu nagusia da nerabeei prestakuntza ematea, baita gainerako herritarrekin bizikidetzatza ona bermatzeko tresnak eskuratzea ere

## Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketarako Sailak bizikletaren hiri erabilera sustatzeko egitasmo batean parte hartuko dute Oriarte Institutuko hainbat ikaslek. Hiru zatitan banatutako zortzi ikastaro izango dira, eta apirilean egingo dituzte.

Hala jakinarazi dute, berriki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publiko saileko zuzendari Ander Iturrik, Agustin Valdivia alkateak, eta Txita enpresako ordezkari Harri Zuazok. Aurkezpenean egon dira baita ere Oriarte Institutuko zuzendari



Egitasmoaren antolaitzaileak Oriarte BHI-n eman dituzte xehetasunak. TXINTXARRI

Olga Iribar eta zuzendariorde Diego Lopez.

DBH 1.mailako 192 ikasleak izango dira ekimenean parte hartuko dutenak, eta guztira zortzi saio izango direla iragarri dute antolaitzaileek; Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu ditu horiek.

Egitasmoaren xehetasunak ikastaroa emateaz arduratuko den Txita enpresako ordezkari Harri Zuazok eman ditu; azaldu du, hiru zatitan banatuko direla saioak. Lehenengoa formakuntza teorikoa izango da, eta ikasleek bizikletaren hiri erabileraren gaineko zenbait jakintza barneratu ahal izango dituzte. Bigarrenean, berriz, ariketa eta jolas ezberdinak egingo dituzte ikastetxeko patioan, bizikletarekin. Baliagarri izango zaie hori ere hirugarren eta azken saiorako; herriko errepide eta bidegorrietan barrena ibiliko dira.

Ekimenaren helburu nagusia da nerabeei bizikletaren hiri erabileraren gaineko prestakuntza ematea, ez hori bakarrik, ordea. Hirietan bizikletarekin segurtasunez eta

errespetuz zirkulatzeko modua barnera dezaten ere nahi dute antolaitzaileek. Azpimarra berezia egin dio bigarren xede horri Ander Iturri Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publiko zuzendariak: "Gainerako herritarrekin bizikidetzatza on bat bermatzeko beharrezkoak diren tresnak eta ezagutzak emango zaizkie. Gure hirietako mugikortasunean kultura aldaketa bat sustatu nahi dugu".

Agustin Valdivia alkateak ere hitz egin du, eta esan, udalak interesez hartu duela Foru Aldundiaren ekimena: "Gazteei bizikleta garraio bide gisa erabiltzeko prestakuntza eta kontzientzia emateko, Lasarte-Oria mugikortasun iraunkorreko beste urrats bat da".

Ikastetxeko ordezkariak ere gustura agertu dira egitasmoarekin. Uste dute ikasleek gogoz erantzungo diotela bertan parte hartzeari. Azaldu dute gaur egun badituztela ikastetxera bizikletaz joaten diren zenbait ikasle.

## ORIANTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

BATXILERGOKO-ko IKASLEEN ONARPENA 23-24

MARTXOAREN 27-tik APIRILAREN 21-era



Landaberri eraikina DBH 1-2  
Pintore 2,  
20160 Lasarte-Oria  
943 89 94 94



Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa  
Buenos Aires aldapa 1,  
20160 Lasarte-Oria  
943 89 94 92

ATE IREKIAK Martxoaren 22an (17:30-18:30) Larrekoetxe eraikinean



[www.oriarte.eus](http://www.oriarte.eus)



# Lehenengoak, 'Ainarak' eta 'Kuartk Valley'

Okendo Zinema Taldea hirugarrenez aurrera eramaten ari da Euskal Dokumentalen Zikloa. Sei proiektiotik bi egin dituzte, eta hurrengo lauak hilak 17, 24, 25 eta 26an izango dira, kultur etxean. 'Izaro', '918 gau', 'Zumiriki' eta 'Los Xey' emango dituzte

## Txintxarri

Euskal Dokumentalen Zikloko aurreneko bi proiektioak egin ditu Okendo Zinema Taldeak: *Kuartk Valley* eman zuten hilaren 18an, Maider Oleaga zuzendaria gonbidatuta; bezperan, berriz, *Ainarak*, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean, Martxoaren 8aren egitarauaren barruan. Beste lau emanaldi programatu dituzte aurtengo aldirako, kultur etxean: gaur, hilak 17, 22:00etan, *Izaro*; hilaren 24an, 22:00etan, *918 gau*; 25ean, 20:00etan, *Zumiriki*; eta 26an, 19:30ean, *Los Xey*. Saio horietako guztietarako sarrerek 6 euro balio dute.

Maider Oleagak zuzendutako *Kuartk Valley* izan zen Euskal Dokumentalen Zikloko bigarren saioko protagonista. Arabako Kuartango udalerrian western bat errodatzeko ametsa zuen Jose Luis Murgak, eta Oier Martinez de Santosek zuzendutako *Algo más que morir*



'Kuartk Valley' dokumentalaren zuzendari Maider Oleaga, hitzetan. TXINTXARRI

pelikulan gauzatu zuen. Egia bilakatze horretan, ordea, bizilagunen laguntza ezinbestekoa izan zuten. Urtetan luzatu zen egitasmo horren berri ematen du ikusentzunezkoak. Gasteizen hazia bada ere, Oleagak ez zuen Kuartango ezagutzen. Hara joan zen batean lagun batek esan zion bailaran western bat

egin zutela eta une horretan "hemen film bat dago" pentsatu zuela gogoratu zuen proiektzio ondorengo solasaldian.

Urte batzuk geroago, grabaketa horri buruzko dokumental bat zuzentzeko mandatua jaso zuen. "Nola egin zuten kontatzea nahi zuten. Pertsona baten pedrada, 18 urterekin hasi zen asmoarekin, eta herri horren

gaitasuna hori aurrera ateratzeko", laburbildu zuen.

## Estreinaldia, 2021ean

Hori buruan zuela 2015ean joan zen lehenengoz Kuartangora, errodajea, berriz, 2018-2019 urteen artean egin zuen. 2021ean Zinemaldian estreinatu zuten. Bailarara joaten hasi zen eta "westerna hor zegoela" ikusi zuen, eurak bakeroen filmetako pertsonaia direla, eta hori nola filmatu pentsatzen hasi zen.

Nola kontatu ez zekiela aitortu zuen, ez baitzeukan ezer, paisaia eta herritarrak bakarrik. "Prozesua nahiko gatazkatsua izan zen, modu asko pentsatu nituen pelikula kontatzeko". Muga gisa jarri zuen *Algo más que morir* ez erakustea, baina une batean jabetu zen ezinezkoa zela, horregatik, grabaketako zatiak erabili ditu, kamara martxan dela jasotako zenbait une. "Oso ondo pentsatuta dago planoka eta oso duina da. Oso elementu gutxirekin eta herriaren laguntzarekin egin zuten". Oraingoz ez dago inon ikusgai, nahiz eta Oleagak sarean jartzeko aholkatu dien.

Hain zuzen ere, zuzendariarentzat une politena Kuartangon pelikula ikusi zutena izan zen. "Oso polita izan zen jendeak nola hartu zuen eta zer nolako erantzuna eman zidan. Oierrek esan zuen: *Algo más que morir* bailara horren erretratu bat da eta pelikula honek historia egiten du, ez handian, herriarentzat baizik".

## Programazioa



### 'Izaro'

Hilaren 17an, 22:00etan.



### '918 gau'

Hilaren 24an, 22:00etan.



### 'Zumiriki'

Hilaren 25ean, 20:00etan.



### 'Los Xey'

Hilaren 26an, 19:30ean.

## Katalogo bat egingo du udalak, herriko artistak ezagutarazteko

Modalitate artistiko desberdinetan aritzen direnek apirilaren 16ra arte izena eman ahalko dute, igandea

## Txintxarri

Edozein diziplina artistikotan aritzen diren herritarren datuak jaso, eguneratu eta katalogo batean bildu nahi ditu Lasarte-Oriako Udalak, helburu honekin: herritarrekin nahiz eragileekin partekatzea, jarduerak antolatzerakoan datu base hori erabil dezaten. Apirilaren 16a baino lehen izena eman beharko dute erregistro horretan azaldu nahi duten artistek.

Agustin Valdivia alkateak eta Gazteria, Festak eta Kirolak saileko buru Txus Alonsok

aurkeztu dute egitasmoa. Adierazi dute udalak erregistro bat duela egun eta 55 artista ingururen datuak dituztela, aipatu departamentuak aurrera eramaten dituen jardueretarako deitzeko. Gaurkotu egin nahi dute zerrenda hori, eta katalogo itxura eman, lasarteoriatarren eskura jartzeko, norbanakoek nahiz eragileek ekimenak antolatzean kontuan izan ditzaten modalitate desberdinetan lan egiten duten artistak. PDF interaktibo bat izango da, diziplina artistikoetan berezia,

"nabigazioa erraztu eta bilatu nahi dutena erosoago aurki dezaten". Horrez gain, artistak publikizatzeke modu bat dela azpimarratu dute. "Askotan, gure herrian ekimenak aurrera eramane nahi ditugunean, gure udalerrian ditugun baliabideak erabil ditzakegu, herrikoak diren artistengana jo", adierazi du Gazteria, Festak eta Kirolak saileko buruak.

Udalak prestatu duen formulario digitalean apirilaren 16aren aurretik izena eman beharko dute interesdunek, arestian aipatu bezala; bestela, katalogoaren hurrengo eguneratzerara arte itxaron beharko dute. Baten batek zalantzarik izanez gero, [erregistroa.artistak@lasarte-oria.eus](mailto:erregistroa.artistak@lasarte-oria.eus) helbide elektronikora idatz dezake.

## Katalogoan inskribatzeko

Udalak prestatutako duen katalogoan izena eman nahi dutenek apirilaren 16ra arteko epea izango dute, egun hori barne. Bestela, zerrenda berriz eguneratu arte itxaron beharko dute. Inskribatzeko estekara joateko, eskaneatu ezazue QR kode hau.



## Herritarrek ia 200 ekarpen egin dituzte sanpedroetarako

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi duenez, lasarteoriatarrek 194 iradokizun bidali dizkiote Jaietan Blai parte hartze prozesuaren bidez, aurtengo sanpedroetako programa osatzeko. Proposamenak hiru kategoria hauetan egin dituzte: euskal musika taldeak, estatuko musika taldeak eta jaietako jarduerak, kontzertuak ez direnak.

Jasotako ekarpenak aztertzen ari da Gazteria eta Festak departamentua. Lasarteoriatar gehienek Internet erabili dute proposamenak egiteko (151, guztira), baina udalerrian zehar jarritako buzoietatik ere jaso dituzte iradokizunak, zehazki, 43. Euskaraz 70 bidali dituzte.



ALBOKA ABESBATZA

## "Ezin hobeto" bukatu dute hartu-eman

Antiguako San Sebastian Martiri parrokiaren (Donostia) aritu zen kantuan Alboka Abesbatza hilaren 11n, Donostiako Luberrikoruarekin batera. Bi taldeek hartu-eman bat egin dute hilabeteotan –Eguberrietako kontzertuan Lasarte-Oriara etorri ziren, San Pedro parrokiara–, eta Albokako kideen esanetan, "ezin hobeto" amaitu zen, hasieran aipatutako emanaldi horrekin.

Luberrikoek ekin zioten kontzertuari. Junkal Guerreroren zuzendaritzapean, abeslariak bost doinu osatutako egitaraua partekatu zuten ikus-entzuleekin: Norvegiako eztei martxa bat; L. Molfino konpositorearen Sacrum Convivium; Antiguako auzokide izandako Imanol Larzabalen zenbait abesti, Luberriren zuzendariak berak moldatutakoak; eta, amaitzeko, J. Ezkurraren *Aritz Adarrean-Kattalin*.

Albokak bitan banatu zuen bere saioa. Obanosko Amotegi lehiaketan apirilean aurkeztuko duen erreperorioaren zati bat erakutsi zuen lehen zatian. Abestietako batean Erketz EDTko dantzarien laguntza izan zuten. Bigarren zatian, aldiz, *Durme durme* sehaska kanta sefardiar, *La La Land* filmeko abesti *City of stars*, Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak* eta Itoiz taldearen *Lau teilatu* abestu zituzten. Kontzertua amaitzeko, bi abesbatzak batera jardun ziren: J. Elberdinen *Izar ederrak* kantatu zuten aurrena, Latorreren gidaritzapean; eta *Mutil txaleko gorri* gero, Guerreroren zuzendaritzapean.



TXINTXARRI

## Barrikotea, hilabetea ixteko

Semblante Andaluz elkarteak sagardotegiko menuan oinarritutako afari bat egingo du hilaren 31n, ostirala, 21:00etan, Atsobakar auzoko egoitzan. Izena emateko epea irekita dagoela gogorarazi dute antolatzaileek, eta azpimarratu 90 pertsona baino gehiago ez dituztela onartuko. Elkarteko bazkide direnek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek, 30.


 URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA




Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari. Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

**EZ DAGO URA BAINO INDARTSUAGORIK**

Elena Arzak, Chef.  
3 Michelin Izar, 2012ko Munduko Emakume Chef Onena.

[www.indartsuagoak.eus](http://www.indartsuagoak.eus)

# Manterola eta Urdalleta izan dira garaileak

'Hizkuntza loratu, izan sortzaile' lehiaketaren irabazleak nortzuk diren jakinarazi dute Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak. Plaka bana jarriko diete iazko urrian Askatasunaren parkean landatutako bi haritzei

## Txintxarri

Izaskun Manterolaren eta Xuban Urdalletaren esaldiak saritu dituzte Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak, Euskararen 10. Maratoialdian landatutako bi haritzei plaka bana jartzeko *Hizkuntza loratu, izan sortzaile* izeneko lehiaketan. Helduen eta gazteen kategoriatako irabazleak izan dira, hurrenez hurren; 100 euro poltsikoratu ditu bakoitzak.

Udaleko Euskara departamentuko buru Jon Antxordoki eta Ttakun KEko lehendakari Mari Karmen Ormazabalek lehiaketaren bi garaileak zoriondu dituzte, eta parte hartu duten guztiei eskerrak eman. Epaimahaiko kideak hauek izan dira: Idoia Garzes idazlea, Euskara Zerbitzuko langile Aitor Unanue, Euskararen 10. Maratoialdiko zortzikoteko kide Coro Dominguez eta Vicky Castro, eta TXINTXARRI aldizkariko kazetari Iñigo Gonzalez.

Askatasunaren parkean bi haritz landatu zituzten iazko urrian, Maratoialdiaren lehen fasean, Sentitu izenekoan, ekitaldi hunkigarri batean. Zuhaitz horietako batean plaka jarrita, gaur egunera arte aurrera eraman dituzten Euskararen



Ezker-eskuin: Ormazabal, Urdalleta, Manterola eta Antxordoki. TXINTXARRI

Maratoiaren parte hartu duten pertsonak omenduko dituzte; bestean oroigarri bat ipinita, berriz, Lasarte-Oriako belaunaldi berriei adorea piztu nahi diete, euskalgintzan aktiboki parte har dezaten.

## Hilaren 24an, emanaldia

Maratoialdiaren antolatzaileek gogorarazi dute emanaldi bat egingo dutela hilaren 24an, ostiralarekin, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan, 19:00etan. Isa Fernandez de Agirrek eta Edu Galardik makina bat irudi grabatu zituzten iazko urritik abendura, eta horiek in ikus-entzunezko pieza eder bat

ondu dute. Hori ikusi eta duela hilabete batzuk bizitakoa gogoratzeko aukera izango dute lasarteoriatarrek. Proiekziara joateagatik ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

Esan bezala, iazko urritik abendura egin genuen Euskararen 10. Maratoialdia, 42 eguneko bidea, hiru fasetan: Sentitu, Prestatu, eta Ekin. Aurrenekoan euskaraz jarduteko motibazio kolpea jaso genuen; bigarrenean, hizkuntza asertibitate landu eta Euskaraldiari ekiteko motorrak berotu; eta hirugarrenean, euskaraz gehiago hitz egin, Euskaraldiak iraun zituen bi asteetan.

## Jolasen mundua ezagutzeko aukera, Amali-ren eskutik

Haur Hezkuntzan ari diren hurrei zuzendutako hitzaldi eta tailer bana emango dituzte, hilaren 27an eta 28an

## Txintxarri


Ttakun Kultur Elkarteak hitzaldi eta tailer bana antolatu ditu, hilaren 27an eta 28an hurrenez hurren, Haur Hezkuntzan jolas eta jostailuekin dauden aukerak zeintzuk diren ezagutzeko. Amali

Jolastuz Hazi egitasmoa martxan jarri duen Haizea Sarasola lasarteoriatarrekin elkarlanean prestatu ditu jarduerak, eta udalaren laguntzarekin.

Hilaren 27an, *Zein jolas, etxeko txikiarentzat?* hitzaldia emango

du Sarasolak, gurasoentzat, Ttakunenea elkartearen, 17:00etan. Hurrengo egunean, HH3tik 5era arteko haurrek eta euren gurasoek tailer bat egingo dute, mahai jolasez gozatzeko familian, 17:00etan, Ttakunenean.

Izena emateko azken eguna hilaren 24a izango da, ostirala. Horretarako, interesdunek [aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus) helbide elektronikora idatzi edo 943-37 14 48 zein 695 78 53 92 telefono zenbakietara deitu beharko dute, edo WhatsApp mezu bat bidali.



Xabin Fernandez eta Intza Alkain 'Kanpora sartzen' antzeztzen. EITB

## 'Kanpora sartzen' antzeztzen ari da Intza Alkain lasarteoriatarra

Legorretan egin dute estreinako saioa, eta iragarri dituzte gehiago ere; tartean, maiatzaren 6an, Lasarte-Orian

## Tintxarri

*Kanpora sartzen* obra estreinatuta berri du Txalo Produksioak konpainiak; iragan asteburuan, hilaren 11n oholzaratu zuten lehenengoz, Legorretako Herri Antzokian. Bertakoa da Xabin Fernandez obraren idazlea. Seropositiboa zela jakin zuen duela hamar urte, hau da, GIBak (Giza Immuneskasiaz Birusa) eragindako HIESa (Harrapatutako Immuno Eskasiaren Sindromea) zuela, eta bizipen horretan oinarrituta idatzi zuen antzerki obra. Idazle lanak egiteaz gain, antzezle ere ari da, baina ez bera bakarrik, berarekin batera ari baita, oholta gainean, Intza Alkain lasarteoriatarra ere.

Kolore gorriko jantziak soinean agertzen da herritarrek ezenatokian, eta GIBa hezurramitzen du. Erakutsiko ditu horrek Fernandezi sortutako barne bizipen guztiak: beldurrak, kezka, eta abar. Hala azaldu zuen hilaren 14an ETBko *Biba Zuek* programan, Fernandezekin batera egindako elkarrizketan.

## Maiatzaren 6an, herrian

Lehen saioa eta gero, iragarri dituzte gehiago ere, Zaldibian eta Ordizian, besteak beste. Baina horien artean, Lasarte-Orian ere bai. Maiatzaren 6an izango da emanaldi hori, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan.

## Mus txapelketarekin hasiko dira 50 urteak ospatzen

Lasartearra elkarteak mende erdi beteko du aurten, eta ospatzen hasteko, jakinarazi du mus txapelketa bat antolatu duela. Izena emateko azken eguna apirilaren 14a izango da, ostirala. Interesa dutenek elkartearen egoitzara joan beharko dute, Erribera 10 kalera, eta bertan topatuko duten inprimakia bete, datu hauekin: izen-abizenak eta

telefono zenbakiak. Antolatzaileek ohartarazi dute bikote bakoitzeko kide batek gutxienez izan behar duela Lasartearra bazkide. Inskripzioak 10 euro balio ditu.

Kanporaketak apuntatzen diren jokalarien arabera izango dira. Txapelketari apirilaren 17an ekingo diote, eta final handia hilabete geroago izango da, maiatzaren 27an, elkartearen bertan. Irabazleek txapel bana jantziko dute, eta gainerako partaideentzat ere sariak izango direla aurreratu dute.



# EDERTASUNA ZABALDU



Gipuzkoa poesiaz bete nahi dugu eta zurekin kontaktzen dugu hori lortzeko.

## MARTXOAREN 15etik 21era

Partekatu edertasuna zure sare sozialetan eta berehalako mezularitzako aplikazioetan: poesia, argazkiak, poema irakurketak, bideo sortzaileak... Irudimena da muga.

#EdertasunaZabaldu #PoesiarenEguna

Poesiaren  
Eguna

Martxoak 21

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Lanbide, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA  
ORAIN



@GipuzkoaKultura

# "Sariak aurrera egitera bultzatzen zaitu"

**AITOR MANSO MENDI IGOERETAKO GIDARIA**

2022 denboraldiko Euskadiko mendi igoeren irabazlea izan da Aitor Manso. 8. mailako zein Gipuzkoako txapelak ere jaso ditu. Hilaren 25ean Aian, hasiko du aurtengo lehia

## Nerea Eizagirre

Euskadiko automobilismoko denboraldia hilaren 5ean hasi zen Gabiriako rallysprintarekin. 2022ko denboraldiko sariak ez zeuden banatuak, ordea; hilaren 11n, Azkoitiako Baztartxo antzokian jaso zituzten euren garaikurrak kategoria ezberdinetako gidariak. Aitor Manso herritarrak, esate baterako, mendi igoeren sari nagusia jaso zuen. Lasarte-Oriako gidaria 8. mailako eta Gipuzkoako txapeldun ere izan da. Harekin bildu garaikurrak zer suposatzen duen jakin eta denboraldi berriari buru hitz egiteko.

**Azaroan Sollubeko proba bertan behera geratu ostean amaitu zen**



Aitor Manso herritarra, podiumean garailearen saria jasotzen. A. MANSO

**2022 urteko denboraldia. Baina urte hasiera arte ez dute ziurtatu zu garaile zinenik. Zer suposatu du zuretzat baieztapen horrek?**

Alaitasun handia izan zen txapeldun nintzela jakitea. Nahiz eta ez dugun berez irabazi, Joseba Iraolak lasterketa bat

gutxiago lehiatu zuen eta horregatik izan gara garaile. Hala ere, sariak aurrera egitera bultzatzen zaitu.

**Hilaren 25ean hasiko duzue denboraldi berria Aian. Autoari moldaketarik egin al diozu?**

Bai, kotxearen fabrikatzaileak hobekuntza batzuk egin dizkio. Iazko lehiaketako jarduna aztertu eta puntu batzuk hobetzeko zeudela ikusi zuen.

**Eta gidatzeko moduan ere aldaketarik egin al duzu?**

